

UTOPIAREN FASEAK

Utopiak ere prozesuan kontsideratu behar dira. Ez beren baitan hertsita: estatiko eta, begiaren bistarentzat izarrak bezala, beti beren buruarekin identiko, argi bat hutsen bezala geldit. Hasieratik bertatik bukatuta bezala. Utopiek beren historia edukitzen bait dute: langileak lan-prozesuaren nagusi oso bihurtzeko utopiak, esaterako. Edo askatasun osoarenak. Edo anai-tasun unibertsalarenak. Utopia guzietan eboluzionatzen dute.

Ez naiz mintzatuko, utopiak herri batetik bestera paseatzeko, edo historiako situazio arras berrietan utopia zaharrak berbituz, etab, egin daitekeen utopien historia. Historia hortako bi faseri bakarrik begiratu nahi nieke. Eta bistan dago, problema eskematizatuz dihardudala.

Lehenengo fasean utopia (utopia esanahi justuan) irudipen eta profekzio individuala da. Gizarte problema batzuen oinazetan erori delarik, oinazeten eta problemaen lehenengo superazioa profekzio utopikoaren moduan egiten da: oraindik ez bait dago benetako, gauzazko superazioa irixterik. Problemekin batera historiaren joera bat, "tendenzia" bat ere sortzen da, baina joera ahula eta insegurua oraindik. Bere buruaren kontzientzia garbirik gabekoa (hone-laxe sortzen dira klaseak ere). Eta pionero edo profeta batzuk izaten dira, gaitzari eta xedeari lehenengo antzematen dituenak. Bidea ez da oraindik sumatzen, bidea ibiliz egiten omen da eta: "Caminate, no hay camino, se hace camino al andar...". Inon baino egiago da hori hemen: profetak bere ametsak etorkizunaren proiektatzen ditu.

"En tanto no exista más que de modo latente y no encuentre una expresión en los movimientos sociales de masas, tal tendencia da lugar a utopias en el sentido estricto de la palabra; esto es, a modelos individualmente fabricados acerca de cómo debería ser el mundo". Irudimenak asmatutako "eredu mentala" benetako premia sozialek sortaraziak dira, taina individualki bururatuak direlarik, oraindik franko fantastikoak eta itxuragabekoak dira, halaberrez. Errealidadearen ezagutza zuzenik eta zehatzik ere ez dagozkie, hau ere ekintzarekin lortzen bait da, astiro-astiro. Beraz, fase honetan utopia, nahitaez, "conciencia mystificada de una tendencia histórica real" da, oraindik ez bait dago praktikan probatzerik.

Eredu mental edo utopia horiek arrazoimenaren kreaioak dira. Hobeki esan: irudimenaren kreaioak, arrazoimenaren zerbitzuan. Engelsek utopista frantsesetaz diotenak, utopista guztizentz balio dezake: "...Betiereko Arrazoiaren eta Justiziaren erresuma jarri nahi zuten hauek ere". (Utopiotan egiazko arrazoiak eta egiazko justiziak gobernatzen dute mundua, kontin-

gentsia historikoen eragozpenik batera gabe). "...Orduan zen guztiaren jule ta epaile bezala, arrazoiari apelatzen zioten. Arrazoizko Estatu bat, arrazoiari zegokion gizarte bat, eraiki nahi zen, eta betiereko arrazoiari kontraesaten zion guztia, aldez, eruki gabe egotzi behar zen". Engelsek zorrozkiki berezten duen moduan, hauk, iraultzagile baino gehiago, "iraultzari bidea zabaldu ziotenak", dira. (Kintanaren itzulpenaren arabera aipatu dira pasarteak).

Oker ote nabil, euskaldunok orain artean utopiaren fase honetan gendiltzala, esaten badut? Justiziari, eskubideei eta arrazoiari, apelatzen zaio beti. Non daude xede horiek egunoroko errealidade konkretuekin konformidadean jartzen dituzten azterketak? Non dago "posibilitadeen kalkulua", politikaren lehenengo printzipioa hori omen bait da? Guk ez dugu inposibilitadeen kalkulorik ere oraindik egin.

Fase honetan utopiak ez du errealidadeekin konpromisirik permititzen: utopia garbia da. Baina, dena bezala, gizonaren ekintzak berehalaxe "zikintzen" du utopia edo hau ere.

Bigarren fase batetan, izan ere, utopia masa edo jendeterien kontzientziara allegatzen da eta (praksia-rekin) honetan urtzen da. Jendeterien kontzientzia bilatzen da: "con el tiempo la utopia se convierte en una conciencia social actualizada; esto es, penetra en la conciencia de los movimientos de masas y forma parte de sus fuerzas motrices esenciales. La utopia pasa entonces del terreno del pensamiento teórico y moral al terreno del pensamiento práctico y comienza incluso a determinar la praxis humana". Eta, alderantziz, berdin: ekintzak atzera utopiaren tankera determinatzen du, hau etengabe aldatuz doalarik.

Utopia oraindik utopiatan gelditzen da, neski: taina idanik ez dago lehen bezain siraen. Badu oinarririk bizi bat, non finkatu: jendeon indarra eta praksia. Hemendik aurrera praktiarekin bategino du, praktiarekin osagarri bilakatuko da (= ez dago teoriarik gabeko praktiarik!), eta utopia praktiari moldatuko zaio. Praksia, berriz, utopiak orientatuko du. Dudarik gabe, ez da haseran bezain utopia utopiko izango, ez bain garbi eta radikal; baina bai errealidadeari gehiago hurbiltzen eta egokitzen zaiona, eta errealidadea aldarazten gehiago laguntzen duena. Honetatik da, zergatik historiari ezker denak moteltzen, epeltzen eta azkenean italtzen diren: utopia baxutzat bait dago, egunoroko premien jentziak, eta errealidadea bera geroz-eta geroz igozaz. Utopia geroz-eta errealizatuagorik dago, eta indar gutiago du.

Utopian beti "kontzientzia desegoki" bat espresatzen da. Mugimendu baten kontzientzia izateratu denean ere, utopia ezinbestean da "una conciencia inadecua-

da, una conciencia que sobrepasa en mucho las posibilidades visibles de ese movimiento" (...) "y constituye un intento deformador de imponer una finalidad extrahistórica a la realidad histórica del movimiento". Alegia, indarrez eta burrukaz behartu nahi zaio xede hori historiaren berezko mugimenduari: inoiz egon ez den zerbaiz sortarazi nahi bait zaio historiari. Horregatik, ekintzarekiko erreferentziak ematen dio zentzua utopiarri. Eta berdin-berdin materialismo historikoari ere: gizonak historiari agertzen duen konstante horrek, azaltzen diguna beste determinismo historikorik ez dago. Determinismo mekanikorik, alegia. Historiaren funtsezko strukturan bi puntu hoik daude: alde batean errealidade "materialak" (produzio-indarrak, produzio-harremanak, gizarte forma, eta beste: berezitsu eta neutroak, esanahirik gabekoak) eta bestean pentsamendua, teoria; (eta errealidadeak ukatzen dituen pentsamendua baldin bada) utopia. Bi puntu hauek egiten dute historiaren oinarriko struktura. Biotakoren bat kentzen bada, ez dago historiari: metafisika gelditzen da: idealismo hutsa (pentsamendua besterik ez da gelditzen), edo materialismo arrunta (materia besterik ez da gelditzen). Alde biak batera hartuz bakarrik pentsa daiteke historia. Beraz, "azken-fineko gauzaren" galderra, metafisikoa da, eta ez dago historiari horrelako galderek jartzirik.

Bi puntuen arteko erlazioa, historiari gagozkiolariz, dialektikoa da, eta dialektikoa izan beharra daduka. Bestela, ekintza hori azken-finean edo lehen-ehetik beti alde batetik bestera doana baldin bada (materialik pentsamendura edo pentsamendutik materia) berriz ere metafisikan jausten gara, eta eskema metafisikoa baten kontsideratzen dugu historia. Hau da, historiari kanpora bilatu dugun eskema batekin kontsideratzen dugu historia.

Eta, azkenik, erlazio dialektiko hori ekintzan datza. Praktikan. Ez idelak eta ez materia espikula daitezke (espikazio historiko batez, alegia: metafisika bazterre-ra uzten dut) praktiarekin ez bada. (Ez dago esan beharrik, praktiarekin metafisika bat ere egin daitezkeela: teoria ekintzaren tresna soil bezala kontsideratzen denean, adibidez, Gramscik erakusten zuen bezala).

Azkeneko oharrok metodoari dagozkie, eta guziz inportantzetzat daduzkat: uste dut, hor dagoela neomaxismoa eta arrunki pentsamendu dialektiko moderno marxismo ortodosotik berezten dituen punturik inportanteena.

Baina pausa gailtezen piska bat, lehenengo fasean.

(Jarraitzeko)
JOSE AZURMENDI

"AGIRRE ETA LEKUBETAR JOSEBA ANDONI SARIA V'karren aldirako deia

SARIKETA

Ura oroitarazi, aren euskaltzaletasuna gureganatu eta euskerari iraunerazi eta bizkortzeko asmoz, Agirre eta Lekubetar Joseba Andoni deritzan saria, boskarrenez antolatzea erabaki dute «Euskal-Kulturaren alde»koek. Sari ori, norgeilagokoa izango da; ona emen sariketa orri buruz xeetasunak:

- 1) V'karren «Agirre-Saria», iru urtez bein eman oi da. Beraz 1973 garreneko martxoaren 23an asi eta 1976 garreneko martxoaren 22garren arte, euskeraz argitaratuko dan idazti oberenak irabaziko du sari ori.
- 2) Idaztiaren gaia idazleak bere gain du.
- 3) Saria bat bakarra, eta mila dolarekoa izango da.
- 4) «Euskal-Kulturaren Alde»ren gain geratzen da epaia ematea. Epaillie bakoitzak autarki ixillez emango du bere erabakia. Erdia baino bat geiago lortu dezan idaztiak saria irabaziko du.
- 5) «Euskal-Kulturaren Alde»k berak emandako erabakia erabat onartuko da, ala bearrez, eta ezto izango iñork epai aurka jotzerik izango.
- 6) Sari ori ezin zatibana daiteke.
- 7) Orrenbesteko saria irabazteko lain izan litekeen idaztirik ezpalego iñori ezin eman lekiok.
- 8) Epaia eskualdeka emana izan liteken susmoa erabat kentzeko, sari ori ezin jaso lezake «Euskal-Kulturaren Alde»ko dan iñork. Edo eta baldin sari uo norentzat izan liteken erabaki bitartean, «Euskal-Kulturaren Alde»ko norbaite idaztiren bat argitara baleza, dalako ori ezin izan liteke epaillie.
- 9) Epaia garaiz emana izan dedin, idazle bakoitzak bere idaztiren bi ale igorriko balizkigu, txera onez artuko genituzke. Idazti bat zuzenbide ontara:
10. Bd. d'Alsace-Lorraine — 64100 Bayonne, Laburdi, eta bestea, 48, rue Singer, 75016 Paris, «Euskal-Kulturaren Alde»ren izenean.

EUSKAL-KULTURAREN ALDE



O y a l s . a .

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak
Bikañenak

GARBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA
Del honi jarraituz bazatuz
zure arloju- KANARIAS y.rtan
baino merkeago-erosiko duzu

Martín Arzu, 1

ONDARRABE



YOGUR

GURELESA
GOGOZKOENA

